

ESKOLA-JAZARPENA

LIBURUAREN FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Gaur ez zara jolastuko

Egilea: Pilar Serrano

Argitaletxea: Mezulari

Urtea: 2018

Hizkuntza: euskara

Sinopsia:



*Ana oso urduri zegoen, eskuak izerditan zituen eta urdaileko mina sentitzen zuen.
Emma, neskato berria, eskolara iritsi zenetik amesgaiztoa bizi zuten guztiek.*

IRAKURKETA GIDA DIDAKTIKOA

Gaia: Jazarpenaren kontzientzia eta enpatiaren garapena

Helburuak

- Harreman toxikoak eta jazarpen mota ezberdinak identifikatzen ikastea.
- Harreman toxiko zein jazarpena dagoen harremanen aurrean nola jokatu behar den ikastea.
- Norbere jokaerak beste pertsona batzuk mindu dezaketela ulertzea eta, enpatia landuz, pertsona guztiak errespetatu behar direla ikastea.

Gomendatutako adina: 7-9 urte

Gurasoei bideratutako informazioa

- **Gure seme-alaba jazarpen egoerei aurre egiteko neurriak hartzen lagundu dezakegu?**

Hasteko, eta gure aldetik garrantzitsuena dena, haren autoezagutza eta autoestimua lantzea gomendatzen dizuegu, bere buruaz harro eta seguru sentituz besteen kritika eta tratu txarrek negatiboki eragin ez diezaioten. Gainera, bere izaera indartzeak, gustuko dituen pertsonak zein egoerak argiago ezagutzen lagunduko dio, eta gustuko ez dituenek aldentzen.

Horrekin lotuta, ezinbestekoa litzateke bere muga sozialak ezartzen ikastea, behar edota nahi duenean ezetza emateko eta bere emozioez segurtasunez hitz egiteko askatasuna duela senti dezan. Hori lortzeko, gurasoen eta senitartekoen aldetik eredua ikusi behar dute, haiekin komunikatzeko aukera dutela ulertuz eta gainerakoak errespetuz tratatzen ikasiz, bere buruarekin egiten duen bezala.

Jarraian, aipatutako alderdi batzuk lantzeko gida bat partekatzen dizuegu.

Garrantzitsua da aipatzea, nahiz eta gida hau 7 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzenduta egon, ikasketa esanguratsuagoa bultzatu beharko duzuela, sortu ditugun galdera eta ariketa guztiak berarekin batera landuz. Zuen seme-alaba arretaz entzutea, bere egoera pertsonalaren arabera beharrezkotzat jotzen duzuen beste galderaren bat egin diezaiozuen eta baita bizi duenaren arabera aholkatu diezaiozuen gomendatzen dizuegu; pazienteak izanik eta bere erritmoak errespetatuz.

Liburua irakurri baino lehen...

1.- *Gaur ez zara jolastuko* liburuari buruz hitz egin

Aurkezten dizugun liburuak ohikoa den egoera bat kontatzen digu, ikastetxe guztietan noizbait gertatu dena eta aurre egin behar dioguna. Liburuaren azalari erreparatu. Marrazki eta izenburua ikusita, album ilustratu honekin landuko duzun gaia zein den asmatuko zenuke? Gida honekin liburua lantzen lagunduko dizugu, zure egunerokotasunarekin lotu ahal izan dezazun eta egoera mota hauek bereizten ikas dezazun.

Lehenengo eta behin, hurrengo galderei erantzun:

- Zein irudi dago liburuaren azalean?
- Bi neskatoen aurpegiak ikusita, nola esango zenuke sentitzen direla?
- Zein uste duzu dela ilehoria den neskatoaren intentsioa? Zergatik uste duzu hori?
- Liburuaren izenburua irakurri. Zer uste duzu gertatuko dela ipuinean?

Liburua irakurtzen duzuen bitartean...

1.- *Gomendio batzuk*:

Atal honetan, adierazten zaizkizun orrialdeei buruzko hainbat galdera proposatuko dizkizugu. Liburua erabiliz, horiek begiratu eta erantzun, pertsonaien keinuei arreta berezia jarritz, haiekin eta haien emozioekin konektatzen saiatzeko.

Ondoren, kontaketa modu sakonagoan lantzeko jarduera eta kasu batzuk azalduko dizkizugu. Arretaz irakurri eta horiek konpontzeko zer egingo zenukeen adierazi. Zure erantzunak zintzotasunez azaldu eta zure egunerokotasunarekin konektatu (eskolan, eskolaz kanpoko ekintzetan, aisialdian, etab.).

Eska iezaiozu amari, aitari zein tutoreari gida honetako ariketak osatzen laguntzeko, galderak eta kasuak ahalik eta ondoen aztertu ahal izateko. Ezagutzen al duzu antzeko egoera bizi duen norbait? Aprobetxa ezazu gaiari buruz galdetzeko eta zure esperientzia kontatzeko!

2.- Orriz orri:



Galdera batzuk:

- Nola sentitzen da Ana? Zergatik?
- Zer aldatu da bere eskolan modu horretan sentiarazten duena?
- Nola sentitzen dira bere lagunak? Bere egoeraz ohartzen direla uste al duzu?
- Liburuaren hurrengo orrialdean Anak zergatik ezin zuen jolastorduetan bere lagunekin egon kontatzen digute. Bidezkoa iruditzen zaizu? Zergatik uste duzu Emmak bere ikaskideekin modu horretan jokatzeko duela?
- Nola uste duzu sentitzen dela Emmak haserre seinalatzen duen haurra?
- Zer egiten dute gainerako haurrek Emmak nola jokatzeko duen ikusita? Zergatik uste duzu jokatzeko dutela modu horretan?

Jarduera:

Ikusi edo bizi izan al duzu noizbait Emmaren antzeko egoerarik?

Imajina ezazu duela gutxi hiriz eta, beraz, ikastetxez aldatu behar izan duzula. Ikastetxe berri honetan ez duzu inor ezagutzen eta ez dakizu lagunak zelan egin: zure gainerako ikaskideek elkar ezagutzen dute eta elkarren artean jolasten dira,

ez dakizu joko berberak gustatuko zaizkizuen, ezta zurekin denbora pasa nahiko duten ere.

Triste sentitzen zara zure lagun guztiak urrun daudelako eta bakarrik zaudelako; baina, batez ere, haserre zaude, etxez aldatzera behartu zaituztelako eta batere gogorik ez zenuelako. Integratu eta lagunak egin behar dituzula uste duzu, edozein modutan izanda ere.

Pentsatu eta azaldu, zintzotasunez, nola jokatuko zenukeen egoera horren aurrean.



Galdera batzuk:

- Zergatik eskatzen dio Emmak sandwicha Anari? Hainbat arrazoi azaldu.
- Zergatik ematen dio Anak, goseak egon arren, bere hamaiketakoa Emmari?
- Erreparatu gainerako haurrei. Anaren eta Emmaren artean gertatzen ari denaz konturatu direla uste al duzu? Imajina ezazu konturatu egin direla. Zergatik uste duzu ez dutela saihesteko ezer egiten?
- Nola jokatuko zenuke zuk egoera hori ikusiko bazenu? Gogoan izan, Anak Emmari ogitartekoa ematen ez badio, ez diola gainerakoekin jolasten utziko.
- Hurrengo lau orrialdeak irakurri. Nola aldentzen du Emmak Ana bere lagunengandik? Begira Zoeren aurpegiari, Emmarekin ados dagoela uste al duzu?
- Uste al duzu Emmak nahi izan duela Anak jakitea Zoeri zer esan dion?

- Nola sentitzen da Ana? Zergatik ez dio Emmari ezer esaten ezta irakasleari gertatutakoa kontatzen?

Jarduera:

Gogoratzen duzu inoiz norbaiti klasean kontakatilu deitu diotenik/diozuenik irakasleari zeozer kontatu izanagatik? Marraztu egoera eta nola jokatu zenuten zuk eta zure gainerako lankideek. Horretaz hausnartu. Nola jokatu zenuke orain?



Galdera batzuk:

- Zer dela eta pasa zuen Anak txango-egun osoan isilik eta bakarrik?
- Konturatu al zara Anaren jokaera edozein dela ere Emmak zeozer esanda isekatzeko duela?
- Egun hartan norbaitek defendatzen du Ana? Nork? Zein da bere laguna defendatzeagatik jaso duen erantzuna?



Galdera batzuk:

- Zergatik egin du oka Anak? Pertsona bakoitzak, urduri, triste edota haserre egotean modu ezberdinetan erantzuten du. Pentsa ezazu horrela sentiarazi dizun egoeraren batean. Nola erantzun zenuen?
- Anaren amak zeozertaz ohartu dela uste al duzu? Zergatik uste duzu hori?
- Anak jadanik ondo dagoela esaten dio bere amari, egia esan al du? Zergatik?



Galdera batzuk:

- Egun hartan Emma Anarekin modu berean jokatzeko jarraitu du. Zein metodo erabili du oraingoan? Nola erantzun dute bere gelako kideek?
- Zure ustez Zoek oraingoan ondo jokatu al du? Zer egiten du Emmak egoera horri aurre egiteko?
- Ostean, Emmak, Bittor Zoe eta Anaren aurka jartzen du. Nola lortzen du?

Jarduera:

Orain arte Anak eskolan pairatu dituen jazarpen modu ezberdinak aurkeztu dizkigute liburuan. Pentsa itzazu bururatzen zaizkizun beste modu batzuk. Noizbait zuk horrelakorik ikusi edota pairatu izan al duzu? Nola jokatu zenuen?



Galdera batzuk:

- Emma gezurretan ari zela azaltzen saiatu badira ere, zergatik uste duzu Bittor Emmaren alde jartzen dela?
- Zertaz konturatzen dira ipuinaren pertsonaia nagusiak? Jolastokian dauden beste ikasleak begiratu eta zer gertatzen ari den azaldu ezazu.
- Hurrengo orrialdera pasa baino lehen, Ana eta Zoeren erantzun. Zer egingo zenuke zuk “gauzak lehengora bueltatu” daitezen?
- Hurrengo orrialdeak irakurri. Nola jokatzeko du Zoek? Nola geratu dira eskolako kideak bere jokaera ikusita? Eta Ana?
- 23 eta 24. orrialdeetan aldaketa txiki bat ikus dezakegu. Egoera azaldu eta Bittorren erantzuna jasotzen duten 3 adjektibo adierazi.



Galdera batzuk:

- Aurreko atalean liburuan bizitzen ari ziren egoera aldatzeko zer egingo zenukeen galdetu dizugu. Zuk esandakoa pertsonaiek egindakoarekin konparatu. Gogoan izan ez dagoela jazarpen egoerei aurre egiteko modu bakarra.

Jarduera:

Pixkanaka ikasle guztia “bankuko taldean” elkartu ziren. Talde bakoitzean nola sentitzen diren eta modu horietan sentitzearen arrazoiak biltzen dituen taula sortu (gutxienez, 3 emozio eta bakoitza azaltzeko arrazoi 1 idatzi ezazu).



Galdera batzuk:

- Nola sentitzen da Emma? Benetan horrela sentitzen dela uste duzu? Zergatik?
- Zer erabakitzen du “bankuko taldeak” Emma haiekin jolasteko eskatzen dienean? Zure ustez, nola jokatu behar zuten? Zergatik?

Jarduera:

Istorio honetarako amaiera alternatibo bat asmatu ezazu.

Liburua irakurri ostean...

1.- Hausnartu

Orain liburua irakurri duzula, jazarpena gaiari buruz zeozer ikasi duzula uste al duzu? Azaldu. Ostean, galdera hauei erantzun.

- Zer iruditu zaizu istorioa?
- Zer aldatuko zenuke istorioan?
- Zer pentsatzen zenuen gaiari buruz liburua irakurri baino lehen? Eta orain?
- Pertsonaia bakoitza zure eskolako/gelako kideekin konparatu. Zein “rol” daukazu zuk egoera horretan? Zer aldatu beharko zenuke egoera horri aurre egiteko?

2.- Role playing

Jarduera hau egiteko, zure familia kideen laguntza beharko duzu. Bakoitzak rol bat hartuko du eta ondoren aurkezten dizuegun egoera txikia antzeztu beharko duzue, bakoitza pertsonaia bat zaretenik.

“Zure ikasgelan zaude, irakaslea oraindik ez da iritsi eta pare bat ikaskide etxeko lanak amaitzen ari den beste batengana hurbiltzen ari direla sumatzen duzu. Atzo ez zuen denbora nahikorik izan etxean amaitzeko, amonari laguntzen aritu baitzen arratsalde osoan. Oso nekatuta sentitzen da eta, ziur aski, horregatik ez da konturatu ikaskideek duela aste batzuetan ezarritako “apurrak” ezizenarengatik izendatzen hasi zaizkiola; bat gehiago pilatzen zaizkionen artean. Deitzeko modu berri honek grazia egiten dizu, nondik datorren dakizulako eta, kaltegarri samarra iruditu arren, ez diozu garrantzia handirik ematen.

Gelako alde horretara berriro begiratzen duzunean, zure gelako 5 bat ikaskidek osatutako talde batek “apurrak” inguratu dute. Batzuek barre egiten diote bere letrari, beste batzuek materiala lurrera botatzen diote... Orduan, zuk jaikitzea erabakitzen duzu eta... irakaslea dator. Denak esertzen dira zu izan ezik, jadanik sartu dela konturatu ez baitzara.”

Istoria antzeztu eta benetan egingo zenuketen bezala jarrai ezazue. Zuk protagonistarena egingo duzu eta zure senideek gainerako pertsonaiak banatuko dituzte: “apurrak”, irakaslea eta beste ikaskideak.

Oraingoan istorioaren hasiera kontatu dizuegun arran, egoera ezberdinak irudikatzen animatzen zaituztegu, errealak edo asmatuak, gai bera edo beste edozein lantzeko. Testuinguru desberdinak ulertzeko eta beste pertsona batzuen azalean jartzeko oso modu praktikoa da. Hori egiten duzunean, pentsa ezazue nola sentituko zinateketen kasua benetakoa balitz eta zer egingo zenuketen konpontzeko.

3.- Identifikatu

Hurrengo egoerak arretaz irakurri eta pentsa ezazu, zeintzuk dira jazarpen kasuak?

- Ikaskide askok egunero iraintzen dute Paule korridoreetan. Ez zaio gustatzen, baina ez dio tutoreari ezer esaten, ez du nahi besteek kontakatilu deitzea. Gaur bere koadernoak apurtuta aurkitu ditu.
- Inork ez du jolastokian Alenekin jolastu nahi, berak egunero taldean jolasten uzten badioten galdetzen badu ere.
- Egun batean Ekhiñe klasean estropezu egin eta ondoko lagunaren erruz izan dela uste du. Kidea bultzatu egiten du eta denek barre egiten dute.
- Maila errepikatu zuenetik, Malen bakarrik sentitzen da. Bere kide berriek beraiekin egotera gonbidatu dute, baina lotsa handia ematen dio.
- Lierrek bere ikaskideak kurrinka egiten entzuten ditu korridoreetatik dabilenean. Lagunek ez diotela berari egiten edota txantxa bat dela esaten diote, baina bera aurrean ez dagoenean barre egiten dute.
- Lehia handia dago A gelaren eta B gelaren artean, ikasturte oso dabilta haien artean norgehiagoka eta batzuetan borrokatu eta iraindu egiten dira.
- Itsasoren auzokidea bere eskolara aldatu berri da. Elkar ezagutzen dutenez, amak eta irakasleak berarekin egoteko eta bere lagunak aurkezteko eskatu diote, baina Itsasok ez du nahi, ez baitira ondo konpontzen.
- Aritz bere ikasturteko zaharrena da eta txikiena agindu dezakeela uste du. Honek esandakoa egiten ez duenean, Aritzek jo egiten du, besteek nork agintzen duen ikus dezaten.
- Haizene oso harro sentitzen da bere kideen barreak eragiten dituenean. Bere ikaskideari irakurtzea kosta egiten zaio eta hitzen bat behar bezala irakurtzen ez duenean Haizenek inozokeriaren bat esateko aprobetxatzen du, klase osoak barre egin dezan.

4.- Jokatu

Ba al zenekien jazarpen-egoeretan ez dutela soilik erasotzaileak eta biktimak parte hartzen? Barre egiten duten guztiak, atzetikan komentatzen dutenak eta baita gertatzen denaz ohartu baina saihesteko ezer esaten ez dutenak ere, jazarpenaren partaide dira.

Berrirakurri itzazu aurreko jardueran azaldu dizkizugun kasuak. Zein seinalek pentsarazi dizute jazarpen-egoerak direla? Pentsatu eta aipatu horietan nortzuk parte hartzen duten eta zein modutan, eta zer egin dezakezu eraso jasotzen duen pertsona laguntzeko.

Bukatzeko, zure ikastetxean antzeko kasuren bat dagoela uste al duzu? Gogoratu inoiz ez dela beranduegi laguntzeko eta zure guraso eta irakasleak aintzakotzat har ditzakezula. Jokatu ezazu.

5.- *Cyberbullying*

Ba al dakizu *cyberbullying*-a zer den? Zure hitzekin azaldu eta adibideren bat jar ezazu.

Orain, kartulina batean infografia bat egingo duzu non gailu teknologikoak erabiliz jazarpeneko egoerak ematen diren.

GAIA LANTZEKO BESTE LIBURU BATZUK:



0-4 urte

- Nos tratamos bien (Lucía Serrano). Beascoa, 2023

5-7 urte

- Un niño muy raro (Ricardo Alcántara). Juventud, 2021
- ¿Qué te ha pasado? (Josep Gregori). Algar, 2021
- El rumor (Zaza Pinson). Siruela, 2021
- Mochilas (Lyona). Planeta, 2021
- ¡Ponte mis gafas! (Aurora Soto). El Dodo Lector, 2020
- Gora koloretako azazkalak! (Alicia Acosta eta Luis Amavisca). Mezulari, 2019
- La pequeña intolerancia (Mar Pavón). Tramuntana, 2018
- Todos con Vanesa (Kerascoët). Beascoa, 2018

8-12 urte

- Canguros en acción (Mónica Martínez). Amazon Fulfillment, 2021
- BAT: Bullying-aren aurkako taldea (Alex Hallat). Elkar, 2020
- BAT: Ziberbullying-aren aurka (Alex Hallat). Elkar, 2020



* Liburu guztiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean eskuragarri daude.